

TXUTXUNPETA

Materiala:

- ☞ Baloiak puzteko erabiltzen den hauspoa.
- ☞ Puxikak.
- ☞ Zinta itsaskorra (zinta aislantea).
- ☞ Galdera-txartelak.
- ☞ Puntuak.
- ☞ Artaziak.
- ☞ Petoak: talde bakoitzak kolore desberdinekoa (aukerakoa).



Jokatzeko arauak:

- ☞ Jokalariak bost taldetan banatu eta talde bakoitzeko kideei kolore bereko petoak jarri.
- ☞ Jokaldi bakoitzean talde bakoitzeko bat aterako da eta taldekideek ezingo diote lagundu.
- ☞ Gidari bi behar dira: batak galderak egingo ditu eta besteak puntuak banatu.
- ☞ Atera direnetariko bat hauspoari eragiten jarriko da eta besteak (txandaka) puxika eskuan dutela erantzuten.
- ☞ Jokoaren helburua talde bakoitzak ahalik eta puntu gehien lortzea da; horretarako, galderak erantzun beharko dituzte.
- ☞ Galderaren erantzuna beti zenbakia izango da eta jokalariak hau asmatzen saiatuko dira, horretarako gidariak laguntza emango die "gehiago" edo "gutxiago" esanez.
- ☞ Gidariak galdera bukatzen duenean, hauspoa duena honi eragiten hasiko da, erantzuna asmatu arte.
- ☞ Jokalari batek galdera asmatzean puntu bat jasoko du eta puxika albokoari pasako dio, jokatzeko ari diren beste bien atzean jarriko da bera eta jokoan jarraituko du puxika lehertu arte.
- ☞ Puxika lehertzean jokalariak aldatu egingo dira.
- ☞ Puxika lehertzean, hauspoari eragiten beste taldeko bat jarriko da, horrela jarraituko dute txandaka.
- ☞ Nahi dugun puxika kopurua erabil dezakegu eta, horrela, jokoaren iraupena luzatu edo laburtu.

Zenbat kilometro ditu maratoniak?

